

## DONOSTIA

Aiete

Altza

Amara Berri

Amara Zaharra

Añorga

Antigua

Bidebieta

Egia

Erdialdea

Gros

Ibaeta

Igeldo

Intxaurrondo

Loiola

Martutene

Parte Zaharra

Zubieta

# hitza

▶ Tolosaldeko

Hitza

▶ Oarsoaldeko

Hitza

▶ Urola Kostako

Hitza

▶ Busturialdeko

Hitza

▶ Goierriko

Hitza

▶ Lea-

Artibaialdeko weba

[Eman izena](#)
[Hitza jasotzeko](#)

## DONOSTIA

[saria](#) » [hiritar merezimenduaren saria](#)

## Dena ezeren truke

Xabier Muñoz, Concepcion Chaosi, Richard Oriberi, Maria Luisa Antoni eta Sos Arrazakeria elkarteari emango diete Hiritar Merezimenduaren Domina

**raul perez**

Udalak Hiritar Merezimenduaren Dominak banatuko ditu San Sebastian egunaren bezperan, urtarrilaren 19an. Ohi bezala, bost domina banatuko dituzte. Xabier Muñoz txistulariak, Concepcion Chaos Udal Haur Liburutegiko arduradunak, Richard Oribe igerilariak, Maria Luisa Anton Puente mojak eta Sos Arrazakeria elkarteak domina bana jasoko dute. Herritarren eta alderdi politikoen proposamenak eztabaidatu zituen atzo Bozeramaileen Batzordeak eta Odon Elorza alkateak sarituak jakinarazi zituen.

Xabier Muñoz Otaegi: Groseko txistulariak hilabete gutxiren buruan jasoko duen bigarren saria izango da Hiritar Merezimenduaren Domina. Azaroaren erdialdean, Euskal Herriko Txistularien Elkarteak Zilarrezko Domina eman zion, 20 urte elkartean lan egin izanagatik. Udalak ere txistuaren munduan egindako lana eskertu nahi izan dio Muñoz.

Concepcion Chaos: Udal Haur Liburutegiko arduraduna da Concepcion Chaos duela 45 urtetik. Haur Liburutegia 1993an jarri zuten Fermin Calbeton kalean eta orduan ere Chaosek zeresana izan zuen. Haurtxotekak ere bultzatu ditu; gurasoei zuzenduta daude haurtxotekak, eta sei urtetik beherako haurrengan irakurzaletasuna piztu nahi dute. Haur literatura da, ez bairik gabe, Chaosen esparrua. Paco Sagarazarekin batera, haur literaturari buruzko irratsaioa ere egiten zuen garai batean Herri Irratian.

Richard Oribe: 2006a urte oparoa izan da Richard Oriberentzat. Izan ere, Antiguako igerilariak lau domina irabazi berri ditu Hego Afrikako Durban hirian jokatuak Minusbaliatuen Munduko Txapelketan. Aurtengo lorpena baino gehiago, Oriberen ibilbide luzea saritu nahi du Udalak. Besteak beste, Bartzelonako, Atlantako, Sydneyko eta Atenasko Paraolimpiar Jokoetan izan da eta dominak pilatzeaz gain, munduko markak ere ondu izan ditu. 32 urte ditu eta ez dirudi igeriketa uzteko asmoa duenik. Oso gustura itzuli zen Hego Afrikatik eta jada bi urte barru Pekinen jokatuko diren Paraolimpiar Jokoak ditu buruan. Igeriketa irakasle lana ere egiten du Oribe gazte minusbaliatuekin.

Maria Luisa Anton: Donostian jaio zen duela 75 urte eta Purgatorioko Ahizpa Laguntzaileen kongregazioko kide da. 1979tik Urgulleko Motako gaztelua txukuntzeaz arduratu da, musutruk. Horrekin batera, hiriko hainbat elizatan, San Inazio, bereziki, gaixoen zaintzan jardun da.

Sos Arrazakeria: Immigrazioaren arloan lan egiten du elkarteak. Etorkinekin elkartu eta haien zalantzak argitu, eta ahal duten heinean eskua botatzen diete. Zenbait jardueraren antolatzen dituzte arrazakeria eta xenofobiaren aurka. Ezagunena, beharbada, urtero Trintxerpe eta Donostia artean egiten duten manifestazioa.

### Alderdiak, ados

Udal alderdiek saritutakoak laudatu dituzte. Odon Elorza alkateak nabarmendu du alderdien arteko adostasuna «ia erabatekoa» izan dela dominak nori eman aukeratzeko orduan. PPko bozeramaile Maria Jose Usandizagak nabarmendu duenez, «denek lan egiten dute, ezer eskatu gabe, Donostia hobea izan dadin». Usandizagak, alkateak bezala, alderdien adostasuna txalotu du.

Xabier Ezeizabarrena EAJko bozeramaileak sarituen ibilbidea laudatu eta haiek ondoan izatea ohorea dela esan du: «Ibilbide eredugarria dute eta Donostiarentzat oso garrantzitsuak diren arloetan dihardute». EAKo Jaione Arratibelek dioenez, «zoriondu behar ditugu haien kemenagatik eta eredu ona direlako».


[handitu](#)

## AGENDA

&gt; Musika

**PARTE ZAHARRA.**

Kontzertua(2007-01-05)

&gt; Musika

**GROS.** Entsaioen hasiera

2006/2007 urterako(2006-09-08)

ekitaldi guztiak ikusi

## INKESTA

## EZTABAIDA

&gt; DONOSTIALDEA

**Udalak Groseko Katalunia plazaren etorkizunari buruzko gaideketa egin du. Zer irudi zaizu ideia eta prozesua?**

## ZORION AGURRAK


**Ongi etorri**  
Julen

## ZERBITZUAK

- Telefonoak
- Tren eta autobusen ordutegiak
- Farmaziak
- Internet helbideak

## IRUDIETAN


**LOIOLA.** San Inazio festetako koloreak-2005

m. j. usandizaga

### Pp-ko bozeramailea

«Saritutako guztiek lan egiten dute, trukean ezer eskatu gabe, Donostia hobea izan dadin»

x. ezeizabarrena

### Eaj-ko bozeramailea

«Ibilbide eredugarria dute guztiek eta Donostiarentzat oso garrantzitsuak diren arloetan dihardute»

jaione arratibel

### Ea-ko bozeramailea

«Saritutako guztiak zoriondu behar ditugu, erakusten duten kemenagatiketa eredu ona direlako»

>> IRAKURLEEN IRITZIAK	
Richard Oribe   2007-01-06   01:53:29	
>> BIDALI ZURE IRITZIA	
Izena:	
E-posta:	
Izenburua:	
Testua:	

Aurreko edizioak:

© Donostiako Hedabideak S.L. - Katalina Elizegi 36 behekoa, DONOSTIA



Internet Ehuntzen S.L.-k garatutako webgunea